Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko ekainaren 20a, osteguna — 119 — Jueves, a 20 de junio de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-lurzoruaren lursailak mugatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2024ko ekainaren 11ko bileran honako erabakia hartu du:

Gipuzkoan, landa-lurzatien % 80 esku pribatuetan daude. Era berean, jabetza oso banatuta dago, eta, horregatik, batez besteko lurzatiaren tamaina txikia da.

Lurzatien mugak nahasiak izaten dira askotan, eta ez dute definizio kartografikorik. Askotan, muga horien kartografia ez dago behar bezala eguneratuta.

Nekazaritzako eta basogintzako ustiategien titularren batez besteko adina handia da, eta belaunaldi erreleboaren defizita ikusten da. Errelebo falta horrek lurzatien mugak ez ezagutzea dakar.

Landa-lurzatien mugak ezagutzea funtsezkoa da finka horiek kudeatzen jarraitu ahal izateko.

Landa-lurzatiak Nekazaritza Ustiategien Erregistroan sartzen dira. Erregistro hori funtsezkoa da Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak nekazaritza eta basogintzaren arloko laguntzak eta baimenak izapidetzeko. Goian adierazitako egoerak, askotan akatsak eta zailtasunak eragiten ditu espediente horiek izapidetzean, eta, beraz, guztiz komenigarria eta beharrezkoa da landa inguruneko lurzatien kartografia eguneratzea.

Eguneratze hori egin ondoren, landa-katastroa eta SIGPAC eguneratzeko izapideak hasteko erabili ahal izango da.

Hori dela eta, 2021, 2022 eta 2023 urteetan Gipuzkoako udalei beren udalerriko landa-lurzoruko lurzatiak mugatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta laguntza horietarako deialdiak egitea onartu ziren.

Egokitzat jo da gaur egun oinarri arautzaileen zenbait alderdi zuzentzea eta, beraz, berriro onestea, baita 2024ko ekitaldiko laguntzen deialdia ere.

Laguntza horiek finantzatzeko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren aurtengo aurrekontuetan 213.181,96 € daude jasota.

Dirulaguntza horiek ez dira estatu laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. artikuluan ezarritakoari jarraituz, kontuan hartuta horien eragina oso lokala edo eskualdekoa dela eta ez dutela ondoriorik Estatu kideen arteko merkataritza harremanetan.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL VERDE

*Bases reguladoras y convocatoria de 2024 del otorgamiento de ayudas para el deslinde de las parcelas del suelo rural del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 11 de junio de 2024, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Gipuzkoa es un territorio donde el 80 % de las parcelas rústicas está en manos privadas. Así mismo, la propiedad está muy repartida de forma que la dimensión de la parcela media es reducida.

Los límites de las parcelas son con frecuencia confusos y adolecen de una falta de definición cartográfica. Con frecuencia la cartografía de estos límites no está convenientemente actualizada.

La edad media de las personas titulares de las explotaciones agroforestales es elevada, apreciándose un déficit de relevo generacional. Esta falta de relevo conlleva una pérdida de conocimiento de los límites parcelarios.

El conocimiento de los límites de las parcelas rústicas es fundamental para que estas fincas puedan seguir gestionándose.

Las parcelas rústicas se incluyen en el Registro de Explotaciones Agrarias, registro que es fundamental para la tramitación de ayudas y autorizaciones en el ámbito agroforestal que se tramitan desde el Departamento de Equilibrio Territorial Verde. La situación anteriormente expuesta ocasiona frecuentes errores y dificultades en la tramitación de estos expedientes, por lo que es del todo conveniente y necesaria la actualización de la definición cartográfica de las parcelas del medio rural.

Una vez realizada esta actualización podrá ser utilizada para iniciar los trámites de actualización del catastro rústico y del SIGPAC.

A tal fin, se procedió en 2021, 2022 y 2023 a la aprobación de unas bases reguladoras del otorgamiento de ayudas a los ayuntamientos de Gipuzkoa para el deslinde de las parcelas del suelo rural de su término municipal, así como las convocatorias de dichas ayudas.

Se ha estimado ahora oportuno corregir ciertos aspectos de las bases reguladoras, por lo que procede de nuevo su aprobación, así como la de la convocatoria de ayudas correspondiente al ejercicio 2024.

Para la financiación de dicho régimen de ayudas, en los presupuestos del Departamento de Equilibrio Territorial Verde del presente ejercicio se ha consignado un total de 213.181,96 €.

Estas subvenciones no constituyen ayuda estatal en los términos establecidos en el artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado su impacto estrictamente local o comarcal y su falta de efecto en los intercambios comerciales entre los Estados miembros.

EK\CV GAO-I-2024-04486

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak onartzea.

Dirulaguntza ildo hau 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota dago. Izan ere, Diputatuen Kontseiluaren 2024ko otsailaren 20ko erabaki bidez, aipatutako Plan Estrategikoa luzatu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024. ekitaldirako luzatutako Aurrekontu Orokorretan jasotako dirulaguntzei dagokienez, 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin eta onetsi bitartean.

Horiek horrela, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-lurzoruaren lursailak mugatzeko udalei zuzendutako dirulaguntzen oinarri arautzaileak, erabaki honen I. eranskinean jaso direnak.

*Bigarren.* Onestea dirulaguntzen 2024ko ekitaldiko deialdia, zeina erabaki honen II. eranskin gisa doan.

*Hirugarren.* 2024ko deialdirako 213.181,96 euroko gastua baimentzea, 1.0920.200.761.01.01.2024 (106.590,98 €) eta 5.0920.200.761.01.01.2025 (106.590,98 €) kontu sailen kargura.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaile hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2024ko ekainaren 11.—Ione Artola Latierro, idazkari teknikoa. (4486)

I. ERANSKINA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-lurzoruaren lursailak mugatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak.*

*1. Dirulaguntzaren xedea.*

1.1. Xedea eta jarduketa esparrua.

Laguntza hauen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriko landa-inguruneko jabetzen mugak hobeto definitzen eta eguneratzen laguntzea, dauden mugak eta mugarriak identifikatuz eta horien kartografia digitala eginez.

1.2. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

Landa-lurzoruaren lursailak mugatzea.

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

Esta línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES), prorrogado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 20 de febrero de 2024 para las líneas de subvenciones contempladas dentro de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa prorrogados para el año 2024, en tanto se procede a elaborar y aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Equilibrio Territorial Verde, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas a los ayuntamientos para el deslinde de las parcelas del suelo rural del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que se acompañan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de 2024 de dichas ayudas, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 213.181,96 euros, para hacer frente a la convocatoria del año 2024, con cargo a las partidas presupuestarias 1.0920.200.761.01.01.2024 (106.590,98 €) y 5.0920.200.761.01.01.2025 (106.590,98 €).

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 11 de junio de 2024.—La secretaria técnica, Ione Artola Latierro. (4486)

ANEXO I

*Bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para el deslinde de las parcelas del suelo rural del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

*1. Objeto de la subvención.*

1.1. Objetivos y ámbito de actuación.

Estas ayudas tienen como finalidad propiciar una mejor definición y la actualización de los límites de las propiedades del medio rural en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, identificando los límites y mojones existentes y realizando la cartografía digital de los mismos.

1.2. Actuaciones subvencionables.

Deslinde de las parcelas del suelo rural.

EK\CV GAO-I-2024-04486

1.3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu ahal izango dira, landa-inguruneko jabetza pribatuko lursailen mugak zehazteko, laguntza deialdiaren urteko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatutako inbertsioak.

Diruz lagundu daitezke garatu beharreko jardueratik zuzenean eratorritako kostuak. Kontratatutako kanpoko laguntzak bakarrik lagunduko dira diruz.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga diruz lagundu daitekeen kontzeptua da, entitate onuradunak benetan ordaindu badu; inoiz ez da gastu lagungarritzat hartuko ondoren berreskuratu edo konpentsatu egin daitekeenean.

Diruz lagundu daitezkeen lanetako gutxieneko inbertsioa 14.000 €-takoa izango da. Udalerri osoaren mugaketa aurrekontu horretara iristen ez bada bakarrik onartuko dira zenbateko txikiagoak.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra egingo du, eta bertan sartuko ditu mugatuko diren lursailak.

Ez dira onartuko aurretik diruz lagundutako poligonoen mugaketak, ezta udalak aurretik mugaketa egin duen poligonoak mugatzea ere.

Era berean, ezingo da diruz lagundu aurretik diruz lagundutako mugaketen azken memoria behar bezala eta epean aurkeztu ez duten udalerrietako lurzatien mugaketa.

*2. Dirulaguntzen onuradunak.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek jaso ahalko dituzte oinarri hauetan erregulatutako laguntzak, baldin eta betetzen badute, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan, onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izateko ezarritako betebeharra.

Erakundeak erantzukizuneko aitorpena egingo du onuradun izaera lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

*3. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

3.1. Eskaerak, ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko dira nahitaez, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren (https://egoitza.gipuzkoa.eus) bitartez, dirulaguntzen atarian sartu (sinadura elektronikoaren edo pasahitzaren bidez) eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarritako berariazko inprimakia erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hau bete behar da: irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioan baliabide elektronikoen erabilera arautzen duena.

3.2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

3.3. Eskaerak aurkezteko epea eta horri erantsi beharreko dokumentazioa deialdian ezarriko dira.

*4. Akatsak zuzentzea.*

Eskariak edo horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badute, edo osatzeke baldin badaude, 10 egun baliodunneko epean akats horiek guztiak konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; eta ohartaraziko zaio ezen, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

*5. Emateko prozedura.*

Dirulaguntzak elkarren arteko lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, eskaerak aurkeztutako hurrenkeraren arabera, dagoen kredituaren mugen barruan.

1.3. Gastos subvencionables.

Serán subvencionables las inversiones en deslinde de las parcelas de titularidad privada del suelo rural ejecutadas a partir del 1 de enero del año de convocatoria de las ayudas.

Serán subvencionables los costos de los trabajos directamente derivados de la actividad a desarrollar. Tan solo serán subvencionables las asistencias externas contratadas.

El Impuesto sobre el Valor Añadido será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente; en ningún caso se considerará gasto subvencionable cuando sea susceptible de recuperación o compensación.

La inversión mínima de los trabajos subvencionados será de 14.000 €. Tan solo se admitirán importes inferiores en el caso de que el deslinde de todo el municipio no alcance dicho presupuesto.

Únicamente se admitirá una solicitud por entidad, en la que se incluirán las parcelas en las cuales se realizará el deslinde.

No se admitirá el deslinde de polígonos anteriormente subvencionados ni de aquellos en los que el ayuntamiento ya haya realizado previamente el deslinde.

Tampoco será subvencionable el deslinde de parcelas en municipios que no hayan presentado en forma y plazo la memoria final de deslindes anteriormente subvencionados.

*2. Personas beneficiarias.*

Serán entidades beneficiarias de estas ayudas los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, siempre que no estén incursos en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La justificación por parte de las entidades de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria podrá realizarse mediante declaración responsable.

*3. Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

3.1. Las solicitudes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán obligatoriamente vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones mediante la firma electrónica o la clave operativa, y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

3.2. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

3.3. El plazo de presentación de solicitudes y la documentación que deba acompañarlas se fijarán en la convocatoria.

*4. Subsanación.*

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

*5. Procedimiento de concesión.*

La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia no competitiva, según el orden de presentación de las solicitudes, dentro de los límites del crédito existente.


EK\CV GAO-I-2024-04486

6. *Finantzazioa.*

Dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du dirulaguntzak aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura izango diren.

7. *Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

7.1. Dirulaguntza horiek emateko prozedura bideratzea Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuari dagokio.

7.2. Lanen jarraipena egiteko jarraipen-batzorde bat eratuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuko, Etorlur Gipuzkoako Lurra sozietateko eta dagokion Udaleko langileek osatua. Batzorde hori gutxienez urtean bitan bilduko da.

8. *Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Entitate eskatzaile bakoitzari 25.000 euro emango zaizkio gehienez deialdi bakoitzeko. Halere, dirulaguntza honek ezingo du gainditu ondorengo formula aplikatuz lortzen den euro kopura:

$$12{,}41 \times \sqrt{\frac{ha}{partzela\ kop}} \times [4 + (2 \times partzela\ kop)]$$

Non ha mugatu beharreko poligonoek okupatzen dituzten hektareetako azalerari dagokio, eta partzela kop poligono horiek dituzten lurzati-kopuruari, hori guztia laguntza emateko unean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean agertzen diren datuen arabera.

Zenbateko hori igo ahal izango da hurrengo deialdietan, oinarri hauek onartzen direnetik igarotako aldiari dagokion EAEko Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera.

Gehienez % 50eko dirulaguntza zuzena izango da, egindako inbertsioen araberakoa eta lehen aipatutako gehienezko mugekin.

Bakarrik udalaren zenbait poligonori eragingo dieten mugatze lanak aurkez daitezke, laguntzen hurrengo deialdietara beste poligono batzuen mugatze lanak aurkez daitezkeelarik. Halere eskaerek poligono osoen mugatze lanak jaso beharko dituzte.

Oinarri hauen arabera emango diren laguntzak murriztu egingo dira diruz lagundutako jarduketa edo inbertsioen amaierako kostua onartutakoa baino txikiagoa denean.

9. *Dirulaguntzak emateko ebazpena.*

Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko foru diputatuak hartuko du.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Ebazpenak entitate eskatzaileak eta aurkeztutako proiektuak eta jarduerak identifikatuko ditu. Dirulaguntza jasoko dutenentzat ebazpenak ezarriko du zein den diruz lagungarritzat hartutako gastua, zein portzentajetan izango den diruz lagundua, emandako laguntzaren zenbatekoa eta baita hori finantzatzeko erabiliko den kontu saila eta urtekoa ere. Jarduera bati dirulaguntza ukatu bazaio, ukatzearen arrazoia zein den adieraziko da.

6. *Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

7. *Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

7.1. La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá al Servicio de Montes y Gestión de Hábitats del Departamento de Equilibrio Territorial Verde.

7.2. Para el seguimiento de los trabajos se constituirá una comisión de seguimiento formada por personal del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Etorlur Gipuzkoako Lurra y el Ayuntamiento correspondiente. Esta comisión se reunirá al menos 2 veces al año.

8. *Cuantía de las ayudas.*

La subvención máxima otorgada a cada entidad solicitante por convocatoria será de 25.000 euros. Sin embargo, la subvención no podrá superar el importe en euros que se obtiene de la aplicación de esta fórmula:

$$12{,}41 \times \sqrt{\frac{ha}{nº parcelas}} \times [4 + (2 \times nº parcelas)]$$

Donde ha corresponde a la superficie en hectáreas que ocupan los polígonos a deslindar y n.º parcelas al número de parcelas que contienen dichos polígonos, todo ello según los datos que figuren en el momento de concesión de la ayuda en la web del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cantidad que podrá verse incrementada en las sucesivas convocatorias en relación al Índice de Precios de Consumo (IPC) de la CAPV que corresponda al período transcurrido desde la aprobación de estas bases.

Las ayudas consistirán en subvención directa de hasta el 50 % del importe de las inversiones realizadas con el tope máximo anteriormente señalado.

Se permitirá la presentación de deslindes que afecten tan solo a determinados polígonos, pudiendo acogerse a convocatorias sucesivas de las ayudas reguladas en estas bases para el deslinde de otros polígonos del municipio. Sin embargo, las solicitudes deben referirse a polígonos completos.

Las ayudas concedidas al amparo de estas bases se modificarán a la baja cuando el costo total final de las inversiones o actuaciones subvencionadas sea inferior al aprobado.

9. *Resolución de concesión.*

La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado o diputada foral del Departamento de Equilibrio Territorial Verde.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

La resolución identificará a las entidades solicitantes y los proyectos o actuaciones presentadas, estableciendo para aquellos a los que se conceda subvención el gasto considerado subvencionable y el porcentaje en que será subvencionado, el importe de la ayuda concedida, así como la partida y anualidad con la que se financiará. Para aquellas actuaciones a las que se deniegue la subvención se indicará la causa de dicha denegación.

EK\CV GAO-I-2024-04486

Deialdiaren ebazpena eman ondoren ez da aldaketarik onartuko bertan onartutako ekintzen zerrendan.

Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

*10. Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunek dirulaguntza onartzeak esan nahi du martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan ezarritako betebeharrak eta oinarri hauetatik ondorioztatutakoak bete behar dituztela.

Bereziki, dirulaguntzen xede diren jarduera edo jarduketen finantzaketaren izaera publikoari behar adinako publizitate egokia eman beharko zaio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi instituzionala txertatuz (departamentuaren logotipoa), eta baita finantzaketa publikoari buruzko legendak ere jakinarazpenetan, kartelen, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan (gutunak, argitalpenak, liburuxkak, eta abar), komunikabide elektroniko nahiz ikus-entzunezkoetan (ikus-entzunezko materialak, publizitatea, web orriak, eta abar), edo komunikabideetan egindako aipamenetan. Logoa aurrealdean eta atzealdean txertatuko da, sortutako dokumentuaren tipologia halakoa bada.

Udalaren berariazko obligazioak:

* Udal-arduradun bat izendatuko du, landa-inguruneari eta bertako biztanleei buruzko esperientzia eta ezagutza izango dituena. Izendatutako pertsonaren izena eta kargua jakinaraziko zaizkio GFAri.

* Jarduketen helburuak zabaltzeaz arduratuko da, katastroko lurzatien titularrak dauden mugak eta mugarriak zehazten saia daitezen.

* Informazio-gune bat jarriko du katastroko titularrei arreta emateko, sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta, hala badagokio, mugaketekin sor daitezkeen arazoak jaso eta aztertzeko.

* Proiekturako kontratatutako enpresarekin lankidetzan, landa-lursailen jabeekin komunikatu beharko du, eta honako alderdi hauek ezagutu beharko ditu:

— Landa-lursailen mugaketan parte hartzeko interesa duten ala ez.

— Bere lurzatia mugatzen duten mugak eta mugarriak ezagutzen dituen ala ez, eta, hala bada, muga eta mugarri horiek identifikagarriak eta lursailean irisgarriak diren ala ez. Argi eta garbi mugatu ezean, ezin izango da digitalizazio-lana egin.

— Lurzatia mugatzen duten mugakideekin eta mugarriekin adostasunik dagoen ala ez. Adostasunik ezean, ezin izango da aldaketarik egin lurzatiaren egungo mugaketan.

* Mugakideak diren jabeen akordioak jasoko ditu.

* Datuak hartzeko akordioak aurkeztu ez diren lursailen jarraipena egingo du, eta desadostasunak ebazteko arbitrajea egiten saiatuko da. Jabeen % 90i, gutxienez, proiektuaren berri eman beharko zaio, modu justifikagarrian.

* Diruz lagundutako jarduerak egiteko behar diren teknikariak, laguntzaileak eta mendiko langileak kontratatuko ditu.

* Lana egiteko kontratatzen duen enpresak lana behar bezala egiteaz arduratuko da:

— Proiektuan sartu beharreko lurzatien jabe guztiei idatziz jakinaraztea egin beharreko lanaren faseak eta baldintzak.

Realizada la resolución de la convocatoria no se admitirán cambios en el listado de actuaciones aprobado en la misma.

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de seis meses, a contar a partir de la publicación de la convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*10. Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

La aceptación de la subvención por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones vigentes establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y las que se desprenden de las presentes bases.

En particular, estarán obligadas a dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa (logotipo del departamento), así como leyendas relativas a la financiación pública en comunicaciones, carteles, placas conmemorativas, materiales impresos (cartas, publicaciones, folletos, etc.), medios electrónicos o audiovisuales (material audio-visual, publicidad, páginas web, etc.), o bien en menciones realizadas en medios de comunicación. El logo se insertará en anverso y reverso si tal fuera la tipología del documento producido.

Obligaciones específicas para el Ayuntamiento:

* Nombrará un responsable municipal con experiencia y conocimiento del medio rural y sus moradores. Se comunicará el nombre y cargo de la persona nombrada a la DFG.

* Se encargará de la difusión de los objetivos de las actuaciones, de forma que los titulares de las parcelas catastrales determinen los límites y mojones existentes.

* Habilitará un punto de información para la atención de los titulares catastrales para solventar las dudas que pudieran surgir y, en su caso, recoger y analizar los problemas que pudieran surgir con las delimitaciones.

